

TENISA

Bruguera, Agassi eta Sabatini Wimbledonetik kanpo

LONDRES

Sergi Bruguera katalana, Andre Agassi estatubatuarra eta Gabriela Sabatini argentinarra Wimbledoneko tenis torneotik kanpo geratu ziren atzo. Bruguera askotan esan du ez zaizkiola gustatzen Wimbledoneko belar gaineko zelaiak. Hala ere, katalana oso gustora zegoen torneo honetan egiten ari zenarekin.

Berak ez du egiten belar gaineko espezialisten sake-bolea jokoa. Bolea da bere kolperik ahulena, baina gustora zegoen katalana boleatzen ari zen moduarekin. Final-zortzirenetarako sailkatzea lortu zuen oso partidu borrokatuak irabazi eta gero. Rafter tenislari australiarraren aurka jokatuakoa asteko partidu onena izendatu zuten Wimbledonon.


Final-zortzirenetan ordea, bere jokoaren antzekoa egiten duen Michael Chang estatubatuarra zuen aurrez aurre. Berak bezala, Roland Garroseko torneo irabazi duen tenislaria. Lurreko pistetan espezialistak diren bi tenislari hauen arteko lehia Changen aldeko erabaki zen hiru setetan. Lehen seta 6-4 irabazi ondoren, bigarrena 9-7 irabazi zuen estatubatuarrek *tie-break*ean. Hirugarren setean bere menpean eduki zuen Changek Bruguera, 6-0 irabazi zion.

Agassik zeresan gutxi eman du aurtengo tornean. Courrieren antzera, badirudi berak ere onenak eman dituela. Atzo Todd Martin estatubatuarrek irabazi zion bost set jokatu ondoren. Bi lehenak Agassik irabazi zituen, 6-3 eta 7-5. Partida berarentzat izango zela zirudienean 0-7 irabazi zuen Martinek hirugarren seteko *tie-break*ean. Hurrengo biak 6-4 eta 6-1 irabazi zituen Martinek.

Gabriela Sabatini ere berrindartze seinaleak ematen ari zen torneo honetan. Ordura arte jokatuakoa partiduetan itxura ona eman zuen baina atzo galdu egin zuen Lindsay Davenport (9) estatubatuarren aurka, 6-1 eta 6-3. Novotna, Navratilova eta Sanchez Vicariorekin batera Wimbledoneko favoritoen artean dago Davenport altuak, 1,80 metro ditu. Novotna eta Navratilova favoritoek final-laurdenetara pasatzea lortu zuten, lehenak 6-3 eta 6-3 irabazi zion Sawamatsu japoniarrari eta Navratilovak erraz menperatu zuen Sukova, 6-1 eta 6-2.

Gizonezkoen mailara itzuliz, Pete Samprasek Daniel Vacek txekarra kanporatu zuen, Ferreira hegoafrikarrak Bjorkman suediarra kanporatu zuen eta Bergstrom suediarrek Shelton estatubatuarra.

TXIRRINDULARITZA



Abraham Olano, bigarren izan zen Edoren eta hirugarren izan zen Mauriren artean.

EFE

Olano, bi aldiz txapeldun

Espainiako profesional mailako bi txapelketak irabazi ditu

Abraham Olano Agipuzkoarrak irabazi ditu profesionalen mailan jokoan izan diren Espainiako bi txapelketak asteburu honetan. Ez da tituluak lortu dituen bakarra izan, emakumezkoen eta afizionatuen mailan ere garaipenak lortu baitituzte euskal txirrindulariek Espainia eta Frantziako txapelketetan.

A. U. / DONOSTIA

Joan den asteburu urrezkoa izan da euskal txirrindularientzat, Espainia eta Frantziako txapelketetan orotara sei titulu lortu baitituzte. Guztien gainetik Abraham Olano azpimarratu behar da. Anoetakoak jokoan zeuden profesional mailako Espainiako bi txapelketak irabazi ditu.

Ostiralean erlojupekoa izan zen. Igandean lineako Espainia-

ko txapelketa korritu zen eta bertan berriro bera izan zen irabazlea. Oraingoan esprintean irabazi zuen Anoetakoak. «Esprinta azkarregi hasi dut eta atzetik hurbiltzen ari zitzaizkidala ikusi dudanean, erritmo aldaketa txiki bat egin behar izan dut irabazteko», esan zuen Olanok igandeko esprinta deskribatzeko orduan. Erraz esan zuen, baina edonor ez da gai azken metro horietan erritmo aldaketak egiteko.

«Momentu oso onean nagoela esan nahi dute bi titulu hauek» gaineratu zuen. Tourraren atarian Olano sasoi bikainean dago, eta horrek emaitza onak ekarri ditu, hilabeteen bost garaipen lortu baititu: asteburu honetako biak, Alcobendasko Klasikoa, Asturiasko Itzulia eta bertako erlojupekoa. «Urtero egin dudana lanaren ordaina dira oraingo emaitzak» zioen igandean. Abrahamek izugarrizko ahaleginak egin ditu profesionaletan leku bat izateko eta hori gutxienez, lortu du.

David Etxeberria amateur mailan, Joane Somarriba ema-

kumezkoen lineako txapelketan eta Izaskun Bengoa erlojupekoan, izan dira Espainiako txapelketa irabazte lortu duten beste euskal txirrindulariak. Frantziako emakumeen txapelketa ere euskal txirrindulari batek irabazi zuen, Chantal Gorostegi angeluarrak. Zirkuituaren azken-aitzineko itzulian eskapatu zen Gorostegi Jocelyne Hugirekin eta esprintaren ondotik lehena ateratzen, pelotoiari 30 segunduko aldea ateraz. Gizonezkoen Frantziako txapelketan iaz lortutako titulua errepikatu egin zuen Castoramako Jacky Duranek.

Podenzana italiarrak ere gauza bera egin zuen, iaz bezala aurten ere berak irabazi baitu Italiako txapelketa. Belgikan Wilfried Nelissenek esprintean irabazi zuen. Holandan Steven Rooks izan zen irabazlea, Gainetinov Errusian, Heppner Alemanian eta Puttini Suitzan.

Agustin Sagastik, berriz, larri jarraitzen du Oviedoko eritetxe bateko arreta intentsiboen unitatean.

RUGBYA

Frantziaren garaipen historikoa Zeelanda Berrian

KOLDO ALDUNTZIN / DONOSTIA

Baikorrenek ere ez zuten uste Frantziak hainbesteko aldearekin, 8-22, irabaziko zuenik Zeelanda Berriaren aurka. Hego Hemisferiokoak taldea berritzen ari dira baina etxean 14 puntuz galtzeak zeresan ugari sortuko du. Etxekoek zigor kolpe gehiegi egiteaz gain, frantziarrek baino grina gutxiago jarri zuten. Hauek defentsa bortitza egin zuten eta hantetako jokoan zorrotz aritu ziren. Horrezaz gain, erabakiga-

rriagoak izan ziren oilarrekoak.

Zeelandarrek entseiu bat eta zigor kolpe bat gauzatu zituzten. Frantziarrek aldiz, entseiu bat, transformazio bat, bi zigor kolpe eta hiru *drop*. Zeelanda Berrian, Brewer, Cooksley, Mannix, Forster, Larsen eta Brewer berriak ziren. Frantzian, Akozoberrik debuta egin zuen. Sellak ehugarren neurketa jokatu zuen selekzioarekin eta Gonzalez kanboarrak partidu ona egin zuen, *touché* eta eta defentsan lan aipagarria eginez.

IPARRALDEA GARAILE HERNANIN

Iparraldeko taldea izan zen irabazle larunbatean jokatuakoa Hernani Hiri Txapelketan. Miarritze rugbi taldeko jokalariek huts egin bazuten ere, gainerakoak han izan ziren. Hernani taldeak bi partiduak galdu zituen, Iparraldekoen aurka 33-0 eta Hegoaldekoen kontra 66-0. Lehengo larunbateko neurketa erabakigarrian, Iparraldeko taldeak 14-0 irabazi zion Hegoaldeari.

LABURREAN

ZUBIZARRETAK Valencian jokatuko du

Andoni Zubizarreta atezainak Valencia futbol taldean jokatuko du datozen bi denboraldietan. Zubizarretak datorren urtean Barcelonan jokatuko ez zuela jakin zenean, Valencia izan zen eskaintza bat egin zion lehen taldea. Aretxabaletako atezainak, ordea, ez zuen erantzun Valenciak jarritako lehen epearen barruan. Roig Valenciako lehendakaria Espainiako selekzioa dagoen Chicagon izan da Zubizarretarekin hitz egiteko eta bertan lortu dute akordioa.

EZKURRA eta Etxeberria irabazle

Espero zen moduan, Ezkurra-Etxeberria doneztebarrek irabazi dute erremonteko Maisuen Torneoa. Igandean jokatuakoa itzuleko partiduan 40-39 galdu bazuten ere Matxin eta Aizpururen aurka, joaneko partiduan lortutako 14 tantoko aldeari esker torneoa ekuratu dute bi doneztebarrek.

ORIO zortziko seniorretako arraun txapelketan garailee

Astebete lehenago Euskadiko Txapelketan erakutsitako maila bikainari eutsiz irabazi zuen igandean Orioko zortzikoak senior mailako Espainiako arraun txapelketaren proba nagusia. Santurtzi bigarren izan zen. Jubeniletan Koxtape izan zen irabazle. Lemazainik gabeko bikoan, senior mailan, Koxtapek lortutako titulua izan zen euskal ordezkariak txapelketa hauetan lortutako hirugarrena.

NUARBE pisu guztietan irabazle sokatiran

Euskal Herriko lur gaineko sokatira txapelketan parte hartzen duten taldeek lau pisutan lehiatu dituzte indarrak azken asteburuan: larunbatean Laukizen (Bizkaia) eta igandean Gopegin (Araba). Nuarbek 600, 640 eta 680 kilotan lehen postua lortu zuen. Hiru pisuetan Gaztedi izan zen bigarren sailkatua.